

azpeitianzer?

udal aldizkaria 151. zenbakia
2012ko urria



Gizarte Zerbitzuak. **Indartuz!**

Garai zailtan herritarrei eskaintzeko laguntza ugari daude.

ale honetan zer?

3 Udal zerbitzua


4 Gizarte Zerbitzuak

14 Motxak

15 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G:SS - 1148/91



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zaborategia	943 15 18 75
Kontuhartzaitetza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Urriaren 22, 27 eta 28.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Urriaren 31.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Urriaren 24 eta 30.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Urriaren 23, 26 eta 29.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Urriaren 20, 21 eta 25.

Udal zerbitzuak

Auzo konposta



Gaurkoa nola... BIHARKOA HALA

Lursailik ez duten familientzat herrigunean konposta egiteko gune berezi batzuk jarri nahi dira Azpeitian; zazpi etxebizitzatik gorako taldeentzat izango dira gune horiek eta talde horretako kideen artean konposta egiteko aukera izango da.

Auzo-konposta guneak jendea apuntatu ahala jarriko dira martxan, eta beraz, interesatuei izena ematea gomendatzen zaie, taldea osatu bezain pronto euren auzoan gune horietako bat jartzeko. Behin konposta egindakoa erabilerarik ematen ez bazaio, mankomunitatea arduratuko da bildu eta baserritarren artean banatzeaz.

Interesatuek mankomunitatean eman behar dute izena: 943 85-73-19 edo ueue@udal.gipuzkoa.net.

Udal erabakiak

Urriaren 2an egindako Udalbatza Osoak honako erabaki hauek hartu zituen:

- 1.-Auzaraza Eremurako Plan Bereziaren tramitazioari hasierako onarpena eman zitzaion aho batez.
- 2.- Kultura eta festa alorreko eginkizunak emateko Azpeitiko Udalaren eta Juan de Antxieta Musika Eskolaren arteko hitzarmena aho batez onartu zen.
- 3.-KUTXako gobernu organoan Batzar Orokorretarako ordezkari baten izendapena Bilduren aldeko botoekin onartu zen. EAJ eta Hamaikabat abstenitu egin ziren.
- 4.- Gizarte Sailak, bere idatzietan erabiliko duen anagrama aho batez onartu zuten.
- 5.- Igozailu berriak jarri eta aldatzeko eman diren obra baimenei dagozkien eraikuntza, instalazio eta lanen gaineko Zergaren kuotan hobaria ematea.
 - Euskal herria, 5eko eraikuntza
 - Olazko Amaren Plaza, 1eko eraikuntza
 - Barrenetxe auzoa, 4ko eraikuntza
 - Barrenetxe auzoa, 6ko eraikuntza
 - Joan XXIII, 5eko eraikuntza
 - Arana kalea, 1ko eraikuntza
 - Urbitarte auzoa, 8ko eraikuntza
 - Garmendia auzoa, 12ko eraikuntza
 - Arria-gain etxea
 - Garmendi auzoa, 14ko eraikuntza
 - Pablo VI auzoa, 14ko eraikuntza
 - Euskal Herria, 3ko eraikuntza
- 6.- 2012ko otsailean, martxoan eta apirilean emandako ebazpenen berri ematea.
- 7.- Galdera eta erreguak.

erreportajea

Gizarte Zerbitzuak sailak herritarrei laguntza ugari eskaintzen dizkio



Udaleko atek zabalik daude laguntza behar duten guztientzat



Gizartea garai zailak bizitzen ari da, eta Azeptikiko Udala horren jakitun da. Beharrezkoa da ekonomiak pairatzen duen egoera honi erantzutea, batik bat, krisi ekonomikoak zuzeneko eragina duelako pertsonengan, familiengan eta gizar tearengan, eta horrek, beste era bateko krisiak sortzen ditu eremu horietan. Horregatik, herritarrei ahalik eta laguntza gehien emateko asmoz, egoerara egokitu da Gizarte Zerbitzuetako siala esku-hartzearen bitartez; sortzen diren behar horiei erantzuna emanez, ikerketa, balorazio eta plangintzak egitearen bidez.

Garai onak izan diren bitartean, ongizate materiala izan da norbanakoen ardura bakarra. Orain, une zailak iritsi direnean, orain arteko baloreak aldatzeko parada ona izan daiteke: "Aprobetxa dezagun krisi momentuak gure barrenean ezkatututa ditugun balore eta printzipioak esnatzeko, besteak beste, elkar tasuna, enpatia, asertibitatea. . .

"Herritarrei ahalik eta laguntza gehien emateko asmoz, krisi egoerara egokitu da Gizarte Zerbitzuak sailak "

Sarritan entzuten da laguntzek joera diskriminatzailea jarraitzen dutela, hots, batzuentzat ematen direla eta besteentzat ez, inongo kontrolik gabe emateko joera dagoela. Baieztapen hori errotik ezabatu nahiko nuke, kontrola handia baita, araudiek zehaztapen handiz jasotzen baitituzte prestazio eta baliabideak jasotzeko beharrezkoak diren ezaugarriak, eta

ez ematearen arrazoi esanguratsuenak, pertsona askok laguntzekiko erakusten duten joera ezkorra dela, Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzeari uko egiten baitiote besteak beste lotsa dela eta. Egia esan, ez da erabaki erraza gugana jotzea baina bide egokiena dela iruditzen zait, batez ere epe luzera, legeak beraien eskubidetzat onartzen baitu. Gizarte Zerbitzuetatik ez da inongo tratu kontakatilurik sortuko, diskrezioaren printzipioetan oinarritzen baikara", agertu du Gizarte Zerbitzuetako arduradun teknikoak den Edurne Zubiak.

Horrela, Gizarte Zerbitzuetako arloak bere eremu zehatzak ditu gizarte premiei erantzuteko eta ildo horretatik, egoera horiei aurre egiteko programa bereziak prestatzen dira. Eskaintzen diren laguntza eta zerbitzuen berri hurrengo orrialdetan duzu.

Gizarte Zerbitzuen laguntzak



BAKARKAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK

“ Beharrezko gastuei aurre egiteko baliabiderik ez dituztenentzat ”

Familiantzako Udal laguntza ekonomikoak aldizkakoak ez diren eta izaera ekonomikoa eta diruz laguntzekoa duten prestazioak dira, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen zuzendutakoak, beti ere, pertsona

horiek gizarte bazterketa saihesteko beharrezko gastu zehatzei, ohiko zein ohiz kanpokoei, aurre egiteko nahikoa baliabide ez badute. Esaterako, alokairua, etxeko mantenuko gastuak, oinarriko gastuak, farmazia, eskolako materiala...



JANARIAREN PARTIKETA

Bi hilabetetik behin, Gizarte Zerbitzuek janari beharra dutenen artean elikagaiak banatzen ditu. Gipuzkoako Elikagaien Bankutik ekartzen dira elikagai hauek eta gehien behar dutenen artean banatzen dira.

Jaso nahi duenak izena Gizarte Zerbitzuetako sailean eman behar du. Partiketa diskrezio osoz egiten da, bai partiketa egiten duten boluntarioen aldetik, eta baita jasotzera joan behar den tokiari dagokionez ere.

“ Janari partiketa diskrezio osoz egiten da ”

Lourdes Ibareguren. Janari partiketa egiteko arduradunetako bat.



1. Zein da banaketa egiteko prozesua? Udaletik beharra dutenen zerrenda pasatzen digute eta banan-

banan hots egiten joaten gara beraiekin gelditu eta janaria emateko. Bestalde, janaria poltsetan prestatzen dugu etorriko den jendearen arabera.

2. Krisi egoera nabaritu al duzue janari partiketa egiterakoan? Bai. Azkenaldian pertsona berriak hasi dira etortzen. Lehen gehienak atzerritarak izaten ziren, baina bertakoak hasi dira gehiago etortzen. Hor nabari da gehien krisia.

3. Nahiko janari izaten al da denen artean banatzeko? Janaria Gipuzkoako Elikagaien Bankutik etortzen da eta batzuetan gutxiago eta bestetan gehiago izaten da.

Gu arrazionalizatzen saiatzen gara. Desberdina da familia unitatea zenbat pertsonen osatzen duten, horrela, lau seme-alabetako gurasoak badaude, gehiago ematen zaie, aldiz, biko familia bada, gutxiago. Oreka bat mantentzea bilatzen dugu.

4. Nola baloratuko zenuke janari partiketaren zerbitzua? Oso ondo. Etortzen diren batzuk oso larri dabilzala esaten digute, oso beharrean aurkitzen diren pertsonak dira orokorrean, eta beraz, oso ondo dagoen zerbitzua da. Gainera, dirua ematea baino hobea da janaria ematea behartsuei, askoz ere garrantzitsuagoa baita.



ETXEBIZITZAK

2 etxe prestatu dira tutoretzapeko etxebizitza gizarte menpekotasunen bat duten pertsonentzat

Helburua:

Bakarrik bizi diren eta gizartemenpekotasunen bat duten pertsonen behin-behineko bizilekua eskaintzea, bizitzeko behin-betiko aukeraren bat aurkitu eta gizarteratzeko programa baten baitan egon arte.

Baldintzak:

- Bakarrik bizi izatea.
- Gizarteratzeko programa baten baitan egotea.
- Azpeitiarra izan eta azken 6 hilabeteetan Azpeitian errolatuta egotea, edota azken 2 urteetan gutxienez Azpeitian errolatuta egotea eta azken 5 urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan.

“ Menpekotasuna duten norbanako edota familiei zuzendutako etxeak dira ”

Egonaldirako epea:

Etxebizitzak behin behineko izaera du, ordezkoa aurkitu arte, eta ezingo du 12 hilabete baino gehiago iraun.

Funtzionamendua:

1. Etxebizitzaren jardunaz arduratuko diren profesionalen laguntza eta aholkularitzarekin, etxe hori erabiliko dutenek konpromisoa hartuko dute bertako egonaldia eragin duen arazoa konpontzen ahalegintzeko. Horretarako, gizarte laguntzaile arduradun bat izendatuko da, eta berak egingo du erabiltzailearen edo erabiltzaileen egoeraren jarraipena.
2. Erabiltzaileen artean gatazkarik

izanez gero, horiek etxebizitzaren arduradunak hartutako erabakiak onartu beharko dituzte. Izendutako arduradunak bilerak egingo ditu, garbitasun eta mantentze-lanak egiten direla egiaztatzeko.

3. Udaleko Gizarte Zerbitzutik ezinbestekotzat joko balitz pisua aztertzea, jakinaren ganean jarri ondoren, barrura sartu ahal izango dira inolako eragozpenik gabe, beti ere, Gizarte Zerbitzuetako arduradunak joango dira, eta inoiz ez bere izenean.
4. Erabiltzaile guztiek behin pisuan sartu ondoren, araudi hau ezagutu beharko dute etabetzeko obligazioa hartu. Horretarako kopia bat emango zaie eta beraiek sinatu egin beharko dute. Arau-hausterik gertatuz gero, arau hautsi duena pisutik bota daiteke, eta araudia ezarri eta betearaztea etxearen ardura duten langileei dagokie.



Etxe bat prestatu da tutoretzapeko etxebizitza gizarte menpekotasunen bat duten familientzat

Helburua:

Gizarte-menpekotasunen bat duten familiei behin-behineko bizilekua eskaintzea, bizitzeko behin-betiko aukeraren bat aurkitu eta gizarteratzeko programa baten baitan egon arte.

Baldintzak:

- Familia-unitatea gutxienez 2 kidez osatutakoa izatea.
- Gizarteratzeko programa baten baitan egotea.
- Azpeitiarra izan eta azken 6 hilabeteetan Azpeitian erroldatuta egotea, edota azken 2 urteetan gutxienez
- Azpeitian erroldatuta egotea eta azken 5 urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan.

Egonaldirako epea:

Etxebizitzak behin behineko izaera du, eta 6 hilabetez egon daiteke gehienez. Kasu berezietan 3 hilabetez luza daiteke.

Funtzionamendua:

1. Etxebizitzaren jardunaz arduratuko diren profesionalen laguntza eta aholkularitzarekin, etxe hori erabiliko dutenek konpromisoa hartuko dute bertako egonaldia eragin duen arazoa konpontzen ahalegintzeko. Horretarako, gizarte laguntzaile ardura-dun bat izendatuko da, eta berak egingo du erabiltzailearen edo erabiltzaileen egoeraren jarraipena.
2. Erabiltzaileen artean gatazkarik izanez gero, horiek etxebizitzaren arduradunak hartutako erabakiak onartu beharko dituzte. Izendutako arduradunak bilerak egingo ditu, garbitasun eta mantentze-lanak egiten direla egiaztatzeko.
3. Udaleko Gizarte Zerbitzutik ezinbestekotzat joko balitz pisua aztertzea, jakinaren gainean jarri ondoren, barrura sartu ahal izango dira inolako eragozpenik gabe, beti ere, Gizarte Zerbitzuetako arduradunak joango dira, eta inoiz ez bere izenean.
4. Erabiltzaile guztiek behin pisuan sartu ondoren, araudi hau ezagutu beharko dute etabetetzeko obligazioa hartu. Horretarako kopia bat emango zaie eta beraiek sinatu egin beharko dute. Arau-haustetik gertatuz gero, araua hautsi duena pisutik bota daiteke, eta araudia ezarri eta betearaztea etxearen ardura duten langileei dagokie.



lazko etxez etxeko eta geriatría ikastaroan parte hartu zuten ikasleak



LAN MUNDURA ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

Etxez etxeko eta geriatría laguntzailea

Etxez etxeko eta 3. adineko zentroetan laguntzaile lanetan aritzeko ikastaroa abian da eta bertan 20 pertsona ari dira parte hartzen.

Prestatu lanean programa

Antolatzeko aurreikusita dagoen ikastaro honetan, lan ohiturak, lanbidearen ezagutzak eta trebetasun sozialak landu nahi dira. Horretarako, etxebizitza baten errehabilitazioa egingo da, ondoren laguntza behar duten pertsonak edo familiak bizi daitezten.

Birgizarteratze tailerra

Gizar te-bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzendutako ikastaroan gizar tera eta lan mundura birgizarteratzeko programa da. Alde teorikoa eta praktikoa ditu.



ESKU – HARTZE PSIKOSOZIALERAKO PROGRAMA

Programa honen helburua hirukoitza da; batetik, gazte zein familiei baliabide pertsonalak eskaintzea arlo guztietan gizarteratzeko (lan merkatuan, kalean, lagun artean...), bestetik, familietan haurren zabarkeria egoera saihesteko laguntza eskaintzea, eta azkenik, eskolaz-uztea, droga-kontsumoa eta gainerako arrisku portaeren prebentzioa egitea. Gaur egun, 55 familiari eskaintzen zaie laguntza.

1.- Zer eratako familiak dira programara joaten direnak?

Askotan pentsatzen dugu kanpotarrak direla programa hauetan parte hartzen dutenak. Hori ez da zuzena. Gaur egun iruditzen zaigu gauza materialak emateagatik edota eskolaz-kanpoko ekintzetan okupatuta egoteagatik haurrak ondo ditugula, eta norabidea galdu egin dugu. Garrantzitsuena maitasuna ematea da, maitasun horretan limiteak ipini egin behar zaizkie txikitatik... Ekintzak beraiekin egin, hitz egin... Gezurra badirudi ere balore hauek galdu egiten ari dira.

2.- Krisi egoera honek eraginik izan al du zuen programan?

Bai. Kopuru aldetik igo egin dira, eta egoerak gero eta larriagoak dira. Beraz, esku –hartzea konplexuagoa da.

3- Zenbat pertsona zaudete programan lanean?

Zuzeneko arretan 3 pertsona gaude eta koordinazio eta gainbegiratzeko beste bi; ezinbestekoa da lana egitea oinarriko beste hiru gizarte langileekin. Gainera, beharrezkoa da eskolekin eta osasun zentroarekin elkarlanean aritzea.

**Programa honen arduraduna
Ainhoa Etura da.**



BIZITZARAKO TREBEZIAN HEZITZEKO ESKOLA PROGRAMA

Bizitzarako trebetasunen definizioa hauxe da: "jarrera beharrezko batzuk portaera egoki eta baikorrak izateko gaur egungo erronkak testuinguru desberdinetan (etxean, kalean, eskolan...) bideratzeko gai izatea". Haur eta gaztea bizitzarako trebezian garatzea du helburutzat programak. Lau ikasturtetan zehar burutu izan da programa eta

oraingo honetan beste lau urtetako programa egingo da, maila sakon batean eta osotasun batekin lana egingo da.

" lazko etxez etxe eta geriatría ikastaroan parte hartu zuten ikasleak "

Orain arte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan lantzen zen programa, oraingo honetan Lehen Hezkuntzako 5 eta 6 mailetara zabalduko da. Ikasleengana zuzentzeaz gain, irakasleekin, ikastetxeetako jangelako langileekin eta gurasoekin ere gai hau jorrazteko hainbat ekintza proposatzen dira.



BOLUNTARIOTZA

Ondokoari laguntzea erroturik dagoen ohitura da Azpeitian. Horren seinale dira herrian ditugun hainbat talde eta elkarte, besteak beste, Nagusilan, Osasun Pastoralta, Odol-emalleak eta San Martin egoitzara joaten den taldea.

Gainera, boluntarioen lanak bi esparru berrietara irekitzeko asmoa dago:

1.-Helduentzako Hezkuntzan (EPA) hasitako programa jarraituz, heziketara bideratutako boluntario lana herrian zabaldu.

2.- Osasun arloan, kalera bakarrik irteteko arazoak dituztenei laguntza eman, etxetik irteteko konpainia jarritz.

Bi programa berri hauekin lortu nahi diren helburuak ugariak dira:

- Sozializatzea
- Indartu ditugun ahalmenak
- Ikasi ematen eta hartzen
- Osasuntsoago egotea
- Harremanak sustatzea





FORMAZIO IRAUNKORRA 3. ADINEAN



Programaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Belaunaldien arteko formazioa sustatu, bakoitzaren esperientziak elkartrukatzeko.
- Gizarteratzea bultzatu, berdintasunaren bidetik.
- Emaitza akademikoak hobetu taldeko estrategien eskutik; hizkuntzen ikasketa, tertuliak antolatu, liburutegiak sortu...
- Elkarkidetzaren plan bat sustatu.
- Ikasle eta irakaslearen arteko taldelana bultzatu.

Horretarako, mahai bat eratu da eragile desberdinetako ordezkariekin; Helduen Eskolako ikasle eta irakasleekin, Esperientzia Eskolaren ikasleekin, Baigera Erretiratuen Elkartekoekin eta Udaleko arduradunekin.

Azken urteetan 50 urtetik gorakoentzat hezkuntza programek gorakada handia bizi izan dute. Era berean, hezkuntzarekin lotutako boluntariorantzako ekintzak ere gero eta gehiago dira. Horregatik, dagoen aukera zabala aprobetxatuz, bi mugimenduen

arteko sinergiak batzea erabaki da parte-hartze handiagoa izateko.

Horrela, etengabeko ikaskuntza proiektua martxan jartzea da asmoa, parte-hartze aktibo bidez, 50 urtetik gorakoek boluntariorantzako helburuarekin.



Esperientzia Eskolako ikasleak saio batetan



INMIGRAZIOA

Immigrazioa gero eta fenomeno egiturazkoagoa dela egiaztatzen da gizarte modernoetan. Prozesu dinamikoa eta jarraitua da immigrazioa, eta politika publikoek, zalantzarik gabe aldakorrek izango diren ezaugarri horietara egokitu beharra daukate.

Gizarteratzea benetakoa izango da elkarrekiko prozesu eta noranzko biko prozesu bezala ulertzen denean, errespetuan eta ezberdina izateko

eskubidean oinarritutakoa, eta gizarte-dinamika berria sortuko dituen bertako eta atzerriko pertsonen arteko komunikazioa, harremana eta elkargunea sustatzen dituena.

Hona hemen egindako programa ezarritako jarduerak:

- Udalerrira bizitzera etorri diren pertsoneri harrera erraztea.
- Azeptiarren eta Azeptitian bizi diren

persona berrien arteko gizarteratzea sustatzea.

- Euskara sustatzea ez dakitenean artean
- Haur eta gazte etorkinen gizarteratzea erraztea.
- Etorkinei lan-merkatura eta prestakuntzara sarrera erraztea.
- Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa sustatzea, bertako eta etorkinen arteko bizikidetzaren mesedetan.
- Udaleko sailen eta Udal eragileen arteko koordinazioa ezartzea.

Ana Saraiva.
Portugaldarra.

1. Nola gogoratzen dituzu lehen egunak Azeptitian? Orain dela 20 urte iritsi nintzen hona. Lelen Azkoitian izan nintzen eta gero etorri nintzen Azeptitira. Ez nuen ez euskararik eta ez gaztelerarik hitz egiten eta beraz, ezin nuen jendearekin hitz egin. Telebista asko ikusten nuen gaztelerak ikasteko eta poliki-poliki ikasten joan nintzen. Gerora, nire bikoteak ikasi zuen eta zuzentzen joaten zitzaidan.

2. Eta herritarrekin harremana? Zentzu horretan ez dut sekula arazorik izan. Oso ondo joan zait azeptiarrekin, are gehiago, laguntzeko prest agertu zaizkit beti. Zorte handia izan dut.

3. Nola lagundu dizu Azeptitiko Udalak? Nire bikotea lanik gabe gelditu zen eta Udalera jo genuen. Behar izan dugun laguntza guztia jaso dugu. Nire kasuan oso esperientzia ona dut Udalarekin, ez dut arazorik izan, eta gizarte-laguntzailearekin erraztasunak besterik ez ditut izan.

4. Integrazioaren gakoa zein dela esango zenuke? Aldez aurreko jarrerak asko kontatzen du. Asko dira Azeptitira iritsi eta urte batzuetara euren etxera itzultzeko asmoa dutenak. Nire kasuan adibidez, oso gustura nago hemen eta ez dut holakorik aurreikusten, guztiz alderantzizkoa, Azeptitian bizitzen jarraitzea nahi dut. Oso ondo. Etortzen diren batzuk oso larri dabiltzala esaten digute, oso beharrean aurkitzen diren pertsonak dira orokorrean, eta beraz, oso ondo dagoen zerbitzua da. Gainera, dirua ematea baino hobea da janaria ematea behar tsuei, askoz ere garrantzitsuagoa baita.



ADIN TXIKIKOENTZAT HARRERA FAMILIA PROGRAMA

IFamilia giro beroa eta sendoa beharrezkoa da haurraren bizian. Gaur egun, ordea, arrazoi desberdinak medio, ume askok ezin dute giro hori familiaren barruan lortu. Horregatik, seme-alabak jatorrizko familiarengandik urruntzea beharrezkoa izaten da zenbait kasutan haurren ongizatea bermatzeko.

Hala ber, haur horiek behar duten maitasuna eta babesa behar izaten jarraitzen dute eta horretarako, harrera mota desberdinak eskaintzen zaizkie.

Alde batetik, harrera residentziala aurkitzen da. Hemen kokatzen da Azpeitiko Arria auzuneko zentroa, non bertan jasotzen duten hezitzaile, psikologo eta pedagogoen laguntza. Bestetik, familia boluntarioek osatzen duten Harrera Familien Programa dago. Programa honetan, jatorrizko familiarik banandua izan den adingabea baten zaintza ematen zaio beste familia bati. Gainera, Foru Aldundiak diru laguntzak eskaintzen ditu harrerak erakarritako gastuak ordaintzeko.

Programaren helburuak

- Familia baten maitasuna eta laguntza eman adingabeari
- Komunitatera eta gizartera integratzen lagundu
- Familia eredu egokia ezagutu, berea osatzen duenerako


Ezaugarriak

Programan sartzen direnak familia giro egokia ez duten haur, nerabe, anai-arreba, ezintasun fisiko, psikiko edota sensoriala edota portaera arazoak dituzten adingabeak izan daitezke. Harrerako familiei dagokienez, berriz,

honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Familia guztiak egon behar du ados.
- Argi izan behar dute ez dela adopzioa.

- Prozesu guztian aholkularitza eta prestakuntza jasotzeko prest egon behar dute.
- Egon daitezkeen aldatetara aldatzeko malgutasuna behar dute.



Elkarrizketa. Itziar Elias. Harrera Familia Programan parte hartzen du.

1. Nola izan zenuen programaren berri? Nik Bilbon egin nituen ikasketak eta han egoitza batean egon nintzen. Egoitza horretan, barneko ikasleak edota internoak ere bazauden eta bakoitzak bere historia zuen. Arantza bat gelditu zitzaidan barnean eta urteetara egunkarian ikusi nuen iragarkia eta bikotean aztertu ondoren, animatu ginen.

2. Zerk bultzatu zintuen parte hartzera? Dударik gabe Bilbon ezagutu nituen pertsonen historiak. Barnean gelditu zitzaizkidan, izan ere, oso egoera gogorrek bizi zituzten, bizitza zaila tokatu zitzairen, eta askok ez zuten nahi izaten asteburuetan etxera joatea ere. 18 urte dituzuenean horrek asko markatzen zaitu.

3. Nola esperientzia da haurra etxean jasotzea? Laster bi urte izango dira haurra hartu genuela etxean eta egia esan, oso esperientzia aberatsa eta ederra da. Zortez, ume txikia zen, hilabete besterik ez zuen, eta beraz, adaptazioa askoz errazagoa eta azkarragoa da.

4. Zer esango zenieke herritarrei esperientziara animatzeko? Ume pila bat daudela beharrenean, eta nahiz eta dituzten hezitzaileak oso onak eta profesionalak izan, 30 haur etxe batean bizi direnean hutsune asko izaten dituzte. Denok etxe hauetara joan beharko genuke nola bizi diren jakiteko, ez gaizki daudelako, baina bai familia baten beharra ez dugu behar bezala baloratzen.

Nik guztiei esango nieke animatzeko, izugarriko esperientzia delako. Barre egiten dutenean, dena betetzen zaituzte eta txar guztia gainditzen da.

Are gehiago, Harrera Familian dauden eta ezagutzen ditudan umeek barre berezia dute, transmititu egiten dute. Azkenean, barrerarekin zuk emandakoa itzul-tzen saiatzen dira.



Paulo VI auzuneko zentzua aldatu da



Paulo VI auzunean lanak egin ditu Udalak, zehazki, erdiko kalea, O'clock akademia kokatzen den kalea, zentzuz aldatu dute. Modu honetan, akademiatik ikastetxerako zentzua hartu beharko dute autoek. Lanak, bizilagunek egindako eskaera bat dira, Denon Artean parte-hartze kanpainaren baitan agertu baitzuten beharra. Izan ere, erdiko kaletik igaroz gero, auzunetik irten beharra zegoen, berriro sartu ahal izateko. Aurrerantzean, auzuneko kaleak jarraian pasatzeko aukera izango dute herritarrek. Gainera, neurri honekin, Artzubiako errotondak jasaten duen trafikoa arintzea espero du Udalak.

Makinista eta sugin diplomak banatuta



burnibidearen Euskal Museoak makinista eta suginak trebatzeko ikastaroa antolatu zuen eta partaide denek gainditu dutenez azterketa, diplomak banatu dituzte. Sei izan dira ikastaroan parte hartu duten pertsonak, lau azpeitiar, zumaier bat eta zarauztar bat. Inñaki Portilla zinegotziak ikasleak zoriondu nahi izan ditu "egindako lanagatik. Trena martxan dago eta ez dago gelditzerik. Gainera, pixkanaka bagoiak eranstean ari zaizkio; turismoarena eta kulturarena, besteak beste. Eta aurrerantzean gehiago erantsiko dira, ikerketa-rena ziurrenik". Maitane Ostolaza Museoko zuzendariak ikasleek egindako lana errekonozitu du, "izan ere, gainditu dute azterketa oso maila altukoa izan da" eta ikastaroa gehiagotan antolatzeko asmoa dutela aurreratu du.

Auzaraza eremua babesteko plan berezia

Urriaren 2an egindako Udalbatzan Auzaraza eremurako Plan Bereziaren tramitazioari hasierako onespina eman zitzaion aho batez. Neurri honekin, eremu horretako etxebizitzetzi babesa eman nahi zaiela agertu zuen Eneko Etxeberria alkateak: "Auzitegi Gorenak hirigintza plana hankaz gora bota zuen eta etxebizitzak eraisteko arriskua hor dagoenez, gure esku dauden tresna guztiak martxan jarri ditugu hori ez gertatzeko. Plan Berezia beharrezko erreminta da, eta juridikoki ezin dugu gehiago egin", gaineratu zuen Etxeberriak.

Enplegu plana gauzatzeko foro sozio-ekonomikoa abian da



Urola Erdiko udalerrriak (Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Aizarnazabal, Beizama eta Errezil) abian jarritako enplegu planak pausoak ematen jarraitzen du. Horrela, plana gauzatzeko zerbitzuaren esleipena Loiola Berrikuntza Fundazioari ematea erabaki da. Fundazioak eskualdeko ekonomiaren eta arazoaren gaineko ezagutza sakona du, eta azken urteetan, berrikuntza eta ekonomia sare estrategikoa indartzearen aldeko lana egin du. Gainera, parte-hartze foroa deitu eta ospatu dute arduradunek, bertan, planean ekarpenak eta iritziak jasotzeko hainbat eskualdeko enpresa, eragile eta administrazioek parte hartzen dutelarik.

agenda



Urria

19, ostirala

AKILINO AMEZUA HIL ZELA 100.

URTEURRENA (1912-2012)

Hitzaldia: Akilino Amezuaren

bizitza eta egindako lanak

Hizlaria: Esteban Elizondo

Ordua: 19:00

Lekua: Sindikatu Zaharra

AITZEALDENK ZUZUNEAN

! 02- KONTZERTUAK

MOBYDICK - ANAI-ARREBAK - GRISES

Ordua: 23:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

20, larunbata

XANJUANDEIKO I. MENDI DUATLOIA

Antolatzailea Sanjuandegiko

Festa Batzordea

Irteera/amaiera: Sanjuandegi auzoa

Arratsaldeko 16:00

AKILINO AMEZUA HIL ZELA 100.

URTEURRENA (1912-2012)

Meza eta Organo kontzertua

Abeslaria: Maiatxien Urkia

Organujolea: Jose Luis Frantsezena

Lekua: Frantziskanetako elizan

Ordua: 17:00

LAGUN ONAK MB

Mendi irteera + Bodegan bazkaria

UDAZKENEAN ABESBATZA

Landarbaso Abesbatza

Ordua: 19:30

Lekua: Zehaztu gabe

SOREASU ANTZOKIA

Zine emanaldia

AITZEALDENK ZUZUNEAN

! 02- KONTZERTUAK

AMA SAY - LISABO - DJ MAKALA

Ordua: 23:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

21, igandea

LAGUN ONAK MB

BTT IRTEERA

AKILINO AMEZUA HIL ZELA 100.

URTEURRENA (1912-2012)

Meza eta Organo kontzertua

Organujoleak: Juan Antxieta

Musika Eskolako ikasleek

Ordua: 10:30etatik aurrera

Lekua: Esklabetako Eliz

AKILINO AMEZUA HIL ZELA 100.

URTEURRENA (1912-2012)

Azpeitiko Bandaren Kontzertua

Ordua: 13:00etan

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

XIII.ORGANO ERROMANTIKO

ZIKLOA 2012

Esteban Elizondo organujolea, Aquilino

Amezuaren urtemugako omenaldia

Ordua: Arratsaldeko 20:00etan

Lekua: Loiolako Basilikan

SOREASU ANTZOKIA

Zine emanaldia

20-21, larunbata-igandea

ESCUADERIA LAGUN ARTEA

URRAKI IGOERA

22, astelehena

IPUIN KONTALARIAK

M. Aiertza

H.H.5

Lekua: Liburutegia

Ordua: 18:00

24, asteazkena

AZPEITIKO PAREKIDETASUN

SAILAK ANTOLATURIK:

Mahai Ingurua: lan

erreformaren ondorioak

Parte hartzaileak: LAB

eta ELA sindikatuen

Moderatzailea: Bilgune feminista

26, ostirala

ORKATZ KULTUR TALDEAK

ANTOLATURIK:

BERTSOPARRANDA

Ordua: 23:00

Lekua:Gaztetxea

27, larunbata

IV.KROS MIXTOA

Antolatzailea: Ikasberri K.E.

Irteera/ Amaiera: Plaza Nagusia

Ordua: 18:00

AKILINO AMEZUA HIL ZELA 100.

URTEURRENA (1912-2012)

Urrestillako abesbatza eta Julian

Barrenetxea eta Itziar Urbieta

organo jolearen meza abestua

eta ondoren kontzertua

Ordua: 19:30

Lekua: Urrestillako elizan

SOREASU ANTZOKIA

Zine emanaldia

HAUR IKUSKIZUNA

"UMEEN TRENA" ANTZERKIA

Ordua: 18:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

28, igandea

LAGUN ONAK MB

Sara – Zugarramurdi

Gaztetxoentzat irteera

XAKE AZPEITIKO HIRIA-2012

Antolatzailea: Udal Kirol Saila

Tokia: Udaletxe azpian

Ordua: 12:00

Izen ematea: doan. Egun

bertan 9:30etik aurrera

UDAZKENEAN ABESBATZA

Donostiako abesbatza

Ordua: 12:30

Lekua: Zehaztugabe

XIII.ORGANO ERROMANTIKO

ZIKLOA 2012

Easo Abesbatza Oscar

Candendo organujolea

Ordua: Arratsaldeko 20:00etan

Lekua: Loiolako Basilikan

DANTZA. ALLUR "IZANAK DIARU"

DANTZA

Ordua: 18:30

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

SOREASU ANTZOKIA

Zine emanaldia

29, astelehena

IPUIN KONTALARIAK

Pello Añorga

L.H. 1-2-3-4

Lekua: Liburutegia

Ordua: 18:00

Ontziratu zaitetz!



Plaza Nagusia, 5
Tel.: 943 15 72 00
www.azpeitia.net

Harategi eta arraindegietan hondakinak murrizteko tupperrak banatuko dira **plazan urriaren 20an** 10:00etatik 13:00etara eta hilaren 26an, 17:00etatik 20:00etara.

